



AJANGIZKO UDALA



BANDOA

Ajangizko Udalak, COVID-19aren hedapenaren aurrean, ahal den neurrian herritarrei babesa, animoak eta laguntza eman nahi die. Edozelako beharrizanaren aurrean Udalak atek eta telefonoak zabalik ditu. Horrez gain, instituzio ezberdinek eskainitako laguntza-ekonomikoei buruz ere informazioa jaso dezakezue.

Bide batez jakinarazi nahiko genuke Ajangizeko Asentzio eta San Isidro jaiak eta programatutako ekintzak guztiak bertan behera geratzen direla egoera hobetu bitartean.

Herrian desinfekzio kanpaina ere abian jarri dugu; edukiontzia astero produktu bakteriologikoekin garbitzen dira baita buzoiak, barandailak, heldulekuak.... desinfektatu ere.

Era beran, Osasun Sailaren gomendioei jarraitzea eta ahal den neurrian pertsonen pilaketak saihestea eskatu nahi dizuegu.

Ajangizen, 2020ko apirilaren 14an

ALKATEA

Koldo Carbonell Oihartzabal

